

Euskal Herrian juduak

La presencia de los judíos en Euskal Herria ha sido constante, al menos desde fechas alto-medievales difíciles de precisar, y las juderías o aljamas fueron los barrios y centros de vida de las comunidades hebraicas, en burgos y villas. La Corona y la legislación foral las tuvieron en cuenta, regulando su condición socio-política y religiosa. La toponimia y los callejeros de algunas de nuestras poblaciones han guardado o recuperado la memoria de ese pasado.

Konformidadean, Euskal Herria ez da izan judu anitz erakarri duen lurraldea; baina judutasunaren historian beren izen leinargiak utzi zituzten judu euskal herritarrok ez dira falta. Judu hauetako gehienek Nafarroan izan zuten beren bizilekua; baina, mendeak aurrera egin ahala, Hiru Probintzietan eta Iparraldean ere bizitzen jarri ziren.

Juduak nondik nora?

Dakiguna da X. mendetik behintzat judurik bada-goela Euskal Hegoaldean, hain zuzen 905. urtearen inguruan ireki baitzen Iruñean Sinagoga bat. XI. mendean Iruñeko Nafar-auzoan daude juduak, Erribera aldeko zenbait herritan bezala (Tutera, Monteagudo, Valtierra eta abarretan).

Udalerrri berriak (burgo eta hiribilduak) sortu eta gora egin ahala, Koroari berari interesatu zitzaion juduen zerbitzuak herrigune horietara erakartzea. Eta alderantziz: juduek ere berorietan aurkitzen zuten beren ogibidea topatzeko aukera, artisauek, merkatariek, medikuek eta ofizio jasoago batzuetan.

Ez da, beraz, harrizkoa X-XIII. mendeetan juduek Erregeen babesa izatea. Juduak Koroaren ondarea izango dira, beronek zaindu eta babestua, balio ekonomiko eta politikoa ere bazutela (zerga bereziak). Lehenengo aldi hartan, kristau eta juduak elkarbizitza eroso eta izan zuten, betiere juduei beren nortasuna ezagutu eta aitortuz.

Euskal Hegoaldeko burgo eta hiribilduen gara-

penak (XII.etik XIV.a azkena arte burutu zenak) erakarmen handia izan zuten kanpotar hauentzat, eta XV.eko mende azkena arte bertako seme eta alaba izan ziren juduak, judu-auzo bereizietan bizi zirela, eta baita kristauen artean elkartasunean ere.

Normalean, judu-auzoak ez ziren izan handiak, baina hiri eedo herri nagusiagoetan egon zen handiagorik ere. Nafarroan, esaterako, Tutera lehendabizi eta gero Iruñe, Lizarra, Biana edo Zangozan; Araban, era berean, Gasteiz, Guardia edo Agurainen; Bizkaian Balmaseda eta Urduñan, eta Gipuzkoan Arrasate eta Seguran.

XIII. mendeko Euskal Hegoaldean lortu zuen horrek guztiak bere loraldirik oparoena; baina ondoko bi mendeak arazotsuak izan ziren, eta bila-kaera hori Udalerrietako Foru eta Ordenantzetan ere ageri da. Oro har, Kontzejuek aintzakotzat hartzen zituzten juduen presentzia eta haiek eskaini zitzaizketen zerbitzu ekonomiko eta ofiziozkoak.

Hori hala izanik ere, herritar guztien arteko berdintasun juridiko eta fiskalik ez zegoen, baizik eta juduak Erregeen babesezkoak ziren, baina betiere harreman-arau bereziekin. Kristau gizartearen barruan eta ondoan bigarren mailako herritarra zen judua.

Harreman gogorrak

Juduen Euskal Hegoaldeko historia 905etik 1492-1498 doana dela esan dezakegu, momentuz Iparraldea aparteko, hau da, Gaztelan Errege Katoli-



koen eta Nafarroan Katalina I.ak kanporatu zituzten arte. Ondoko juduen historia Iparraldean bizi izan zen, Bidaxunen bezala Baionan, izan ere hiriburu horretara bildu baitzen Espainia edo Portugaldik jaurtirik bildu zen hainbat judu (Baionan irekita dago Sinagoga gaur egun).

Berant Erdi Aroan (XIV-XV. mendeak) Gurutzaden garaietatik indartuz zetorren antisemitismoa hestutzen joan zen, kristau-juduen arteko aldeak azpimarratzen zituela, arauak gogortzen, eztabaida eta elkarren arteko tratua zitaltzen. Aurreko mendeetatik jasotako pentsaera antisemita areagotu egin zen, arrazoi erlijioso, politiko eta ekonomikoengatik. Eskeko Ordena erlijiosoek, juduen konbertsio bila zebiltzala, ez zuten onik egin.

Nahiz eta judu asko, esan bezala, auzo bereizietan bizi, ez ziren haiek auzunean itota bizi, beren lan eta zereginak kristauen gizarteari begirakoak ziren eta. Hasteko, agintari kristauak arrazoi ezberdinengatik premiazkoak zituzten juduak, prestakuntza egokia zutelako, baliabide finantzariak zituztelako, etab. Merkatal harremanak, sal-erosketa nahiko, medikuntza edo albaitaritza zerbitzuak, artisau produktua: halako zeregin guztiek behar zituzten juduen lana eta ardura.

Esan beharra dago, gainera, beren modura Erreinuko eta Elizako administrazioen parte zirela juduak: zergak herriz herri eta etxez etxe biltzeko zeregina juduek zuten sarritan, eta Elizarentzako hamarrenak jasotzea zen lan horietako bat. Diru eginez oinarritzko botere ekonomiko izatera heldu ziren. Hala, bada, Estatuaren eta Elizaren zerbitzuan Erakundeen zama fiskala juduek eramaten zuten herritarren bizkarrera, eta ez ziren, noski, jende atsegina.

XIV.ko krisi sozio-ekonomiko larrietan, Koroa, nobleak eta pobreak, denak gertatu ziren harrapatuta, eta juduei eskatu zitaien maileguak emanez

egoera konpontzeko; mailegatutako diruak itzultzeko orduan, oster, ezinaren zoritxarra juduen lukurreriarri egotzi zitzaion. Lehertzeaz zegoen, bada, judu eta kristauen arteko harreman adostua.

Oro har, juduekiko legeak estutzen ari ziren bitartean, jendearen ezin-ikusia irabazi zuten juduek. Eta horri guztiari erlijioen arteko berezko lehia gehitu zitzaion, gainera, batzuetan predikariek gupidagabeki xaxatu zuten lehia. Herritar xumearen iruditerian zeuden juduek egiten omen zituzten izugarrikeriak.

Horrek emaitza tamalgarriak ekarri zituen, *pogrom* edo judu-erahilketa handiak: 1328koa izan zen lehen triskantza, Lizarran, eta hangoaren ondotik etorri ziren Gares, Biana, Urantzia, Funes eta Alesbes-ko erailketak. Kristau herritar arruntak izan ziren judu-auzoei eraso zietenak.

Urak beren onera etorri zirenean egin zen justizia (zenbaterainokoa?), baina hildakoak hilda gertatu ziren. Mendea bukatzeaz zela (1391), bizi izan zen berriro halako beste *podrom* bat Nafarroan. Zorionez, ez dirudi Hiru Probintzietan antzekorik egon zenik.

Ezbehar guztion ondoan gogora dezagun judu nafarrek izen handiak eman zituztela sefardien kulturarako: idazleen artean Yehuda Ha-Levi (†1141), Abraham Ben Ezra (†1164) edo Benjamin Tuterakoa (c. †1173), gaur egun Jerusalemeko kaleetan aurki daitezke izenak dira.

Orain, Estatuaren arteko mugen gaintetik, Baionako juduek eta Gasteizko Udalak topaleku berria dute Judimendiko hilerri juduaren oroimenerako: hiriko auzo oso bati eman zaio izen hori, aspaldiko hitzarmen baten ondorioz (1952), eta Sefarad Plazan dago izen bereko Kultur-Etxea eta Yaël Artsiren "Elkarbizitza" eskultura.

Joseba Intxausti